*Bigarrena.*– Lehenengo atalean azaltzen diren 9 taldeek deialdiaren 13. oinarri arauan zehaztutako saria jasoko dute: 9 ikasgelak Ipar Euskal Herrira/Nafarroako 3-4 eguneko bidaia eta talde bakoitzeko irakasle batek astebete inguruko bidaia euskaldunok bezala bere hizkuntza indarberritzen saiatzen ari den herrialde batera.

*Hirugarrena.*– Lehiaketara aurkeztu diren ahots hoberenekin kasete bat argitaratuko da, ahalik eta zabalkunde handiena emanez eta ikastetxeetara eredu gisa bidaliz.

Gasteiz, 2004ko maiatzaren 3a.

Hezkuntza sailburuordea,
ABEL ARIZNABARRETA ZUBERO.

*Segundo.*– Los 9 grupos que se especifican en el punto primero recibirán el premio contemplado en la base 13.ª de la convocatoria, es decir, un viaje de 3-4 días al País Vasco Norte y/o a Navarra, y un profesor de cada grupo recibirá como premio un viaje de aproximadamente una semana a un país, en el que al igual que los vascos, estén trabajando por la recuperación de su lengua.

*Tercero.*– Se publicará una casete con las mejores voces de entre los presentados al concurso, procurándole la mayor difusión posible y enviándolo a los centros a modo de muestra.

En Vitoria-Gasteiz, a 3 de mayo de 2004.

El Viceconsejero de Educación,
ABEL ARIZNABARRETA ZUBERO.

**Zk-2886**

EBAZPENA, 2004ko maiatzaren 20koa, Langileriaren Kudeaketarako zuzendariarena, 2004/2005ko ikasturtean ordezkapenak egiteko izangaiak kudeatzeko prozesuan alfabeto-ordena zehaztuko duen letraren zozketaren emaitza argitara ematen duena.

1995eko irailaren 13ko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileriaren Kudeaketarako zuzendariaren Ebazpenak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko izangaien zerrenda kudeatzeko arauak onartzen dituenak, 4. artikuluko 1.2.4. idatzzatian xedatutakoaren arabera, izen-abizenen alfabeto-ordena erabiliko da puntuazioaren berdinketak hausteko, hasiko den letra zehazteko asmoz urtero egin beharreko zozketa batetik abiatuz.

2004ko maiatzaren 20an aipatutako zozketa izan zen Langileriaren Kudeaketarako Zuzendaritza honen egoitzan. Horregatik guztiarengatik,

EBATZI DUT:

*Artikulu bakarra.*– Argitara ematea «O» izango dela 2004/2005eko ikasturtean ordezkapenak egiteko izangaien zerrendan beteko den lekua zehazteko letra, berdinketa gertatuz gero eta berdinketa hausteko azken irizpide gisa.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko maiatzaren 20a.

Langileriaren Kudeaketarako zuzendaria,
ITZIAR GARAIZAR AGIRRE.

**N°-2886**

RESOLUCIÓN de 20 de mayo de 2004, de la Directora de Gestión de Personal, por la que se hace público el resultado del sorteo de la letra que determinará el orden alfabético en el proceso de gestión de candidatos/as a sustituciones durante el curso escolar 2004/2005.

La Resolución de 13 de septiembre de 1995, del Director de Gestión de Personal del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, por la que se aprueban instrucciones sobre gestión de lista de candidatos/as a sustituciones en centros públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en el apartado 1.2.4. del artículo 4 establece que como último criterio para deshacer empates de puntuación, se utilizará el orden alfabético de apellidos y nombre, a partir de un sorteo anual que se realizará a fin de determinar la letra desde la que se empezará.

El día 20 de mayo de 2004 en la Sede de esta Dirección de Gestión de Personal tuvo lugar el sorteo señalado, por todo ello,

RESUELVO:

*Artículo único.*– Hacer público que la letra que determinará, en caso de empate y como último criterio de desempate, la posición que se ocupará en la lista de candidatos/as a sustituciones durante el curso escolar 2004/2005, es la letra «O».

En Vitoria-Gasteiz, a 20 de mayo de 2004.

La Directora de Gestión de Personal,
ITZIAR GARAIZAR AGIRRE.